ZORTZICOA.

Jayo ziñan ordutic
Luisa Fernanda
Amabi urte terdi
Orain arte joan dá:
Eta gaur Donostia
Lengua bera da,
Ciñez, biotz osotic
Beti zurca dá.

Infanta gaztechoa
Españiacoa,
Isabelen aizpacho
Biotz gurecoa:
Erregueren alaba
Zori onecoa,
Ar ezazu oroitze
Donostiacoa.

—

CORO.

Jaquin guenduenian
Cedorren jayotza,
Bertatic aguertu zan
Gure barren poza:
Egon arren dembora,
Gogor eta otza,
Soñu, canta, dantzetan,
Cebillen bacoitza.

Salve Luisa, salve
Infanta maitea,
Erreguiñaren aizpa
Bacarcho gaztea:
Lore gain gañecoa
Berdiñic gabea,
Aingeru ezti eder
Naiqueraz betea.